

Alejandro Aldridgek, GEPko ikasleak, irabazi zuen MONDRAGON UNIBERTSITATEko karting txapelketa

2014/12/17

Pasa den asteko ostegunean ospatu zen MONDRAGON UNIBERTSITATEko Karting Txapelketa Gasteizko Karting Indoorean.

22 ikaslek parte hartu zuten guztira. Partaide denak bi taldetan banatu ziren eta bere 10'ko beroketa tandarekin hasi ziren. Bertan, kartingen funtzionamendua eta ibilibidea ikasi zuten.

Talde bakoitzak bere beroketa egin eta gero, finalerako sailkapen fasea jokatzeko ordua zen. Horrela berriro taldeka beste 10'ibili ziren, talde bakoitzeko 5 onenak zeintzuk izango ziren erabakitzeko.

Finalean, talde bakoitzeko bost gidari onenak lehiatu ziren, aurreko denboren arabera filan jarri eta "salida lanzada" batekin hasi zirelarik.

Bukaeran, Alejandro Aldridge, GEPko ikaslea izan zen gidaririk onena.

Zorionak berari eta eskerrik asko parte hartzaile guztiei.

